

164/2016 Ebazpena, 2016ko maiatzaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Horren bidez etenik gabe irekita geratzen da 2014ko Aldi baterako kontratazio-zerrendetan zenbait kategoriatan/lanpostu funtzionaletan izena emateko aukera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzeko eta kudeatzeko modua arautu zuen 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

2014ko abenduaren 16ko 361/2014 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariak emandakoa, ireki egin zen 2014ko aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko epea, 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategorietarako eta ireki behar izan diren beste 5 kategorietarako.

Esandako Erabakiaren Hamazazpigarren Atalean, zerrenda berrien premiei buruzkoan, zera esaten da etengabe irekita ez dauden kategorien inguruan: irekitzeko aukera dagoela, mugarik gabe edo egoki irizten den eperako, baldin eta horren beharra badago eta lehentasunen arabera antolatuta.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Etenik gabe irekita uztea izena emateko aukera 2014ko Aldi baterako kontratazio-zerrendetan, kategoria hauetan: Fak. Esp. Psikologo-Kliniko teknikaria eta Fak. Esp. Ospitale Farmaziako teknikaria, aintzat hartuta 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Hamazazpigarren Atala, hautagaien kopurua handitzeko beharra dagoelako, Osakidetza aurrera begira egin ditzakeen kontratazioetarako.

Zerrenda horien baremazioa 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Laugarren Atalean zehaztutakoa betez egingo da, egun indarrean dauden zerrenden ondo-ondokoak izan daitezen.

Bigarrena.- Eskaera soilik modu telematikoa egingo da, <http://www.osakidetza.euskadi.eus> web-orriko aldi baterako kontratazio-programa erabilia, bertara honela iritsi ahal delarik: Profesionala naiz/Giza Baliabideak-Hautaketa eta horniketa/Aldi baterako kontratazioa/2014ko kontratazio-zerrendak/Eskabidea.

Hirugarrena.- Kontratazio-zerrendetan onartua izateko aurkeztu beharreko dokumentazioa eta izen-ematearekin lotutako bestelako alderdi batzuk izena emateko epea zabaltzearekin batera esandako web orrian argitaratuko diren jarraibideetan zehaztuko dira.

Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahaliko diote Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 24an



Iz.: José María Armentia Macazaga
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA